

2006KO IRAILAREN 6KO **TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta seiko irailaren seian, iluntzeko zazpian, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Inazio Estensoro Eskisabel eta Xanet Barreras Jauregi.

Igor Sarriegi Zumarraga eta Arantxa Zumelaga Agirre zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurutuzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2006ko uztailaren 12an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2006ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 7 zbk.dun fakturen zerrenda, HIRUREHUN ETA LAUROGEITA ZORTZI MILA HIRUREHUN ETA HIRUROGEITA HEMEZORTZI euro eta LAUROGEITA HEMERETZI zentimo (388.378,99 €)takoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

III.- UDALETXEKO LEHEN SOLAIRUKO BIRMOLDAKETA LANEN ZERTIFIKAZIOA.-

Jarraian IKENA 2001 S.L. enpresa burutzen ari den Udaletxeko birmoldaketa lanen bigarren fasearen bosgarren zertifikazioa aurkezten da bere onarpenerako. Zertifikazio honen zenbatekoa HOGEITA BI MILA HIRUEHUN ETA LAUROGEITA HEMERETZI euro eta BERROGEITA HAMABI zentimo (22.399,52 €)takoa da, eta udal arkitekto teknikoaren oneritzia darama.

Honen aurrean eta gaia aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzordeak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin zertifikazio hau onartzea erabakitzen du.

IV.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Etxez-Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 792 zbk.dun esped.: astean 6 egunez egunean 2 orduko zerbitzua ematea. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %100a izango da.

Telealarma zerbitzua.-

- 751 zbk.dun esped.: Telealarmaren instalaziorako 53,77 € eta mantenimendurako urtean 57,29 € ematea. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %75a izango da.

Erretiratu eta pentsiodun elkarteari dirulaguntza.-

- "Orobione" erretiratu eta pentsiodun elkarteari, San Miguel eguneko bazkarirako 1.980 €ko dirulaguntza ematea.

V.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zazpi terdiak direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.